

DIRU ITURRIAK

FINANTZAZIOA

Gure enpresaren hasierako gastuak aurrera eraman ahal izateko bankuko finantziazio bat eta crowdfundinga erabiliko dugu.


Nahiz eta zerbait finantziatzeko ohikoagoa izan bankuan mailegu bat eskatzea azken urteetan crowdfundinga modan jartzen ari den metodo bat dat. Crowdfundinga azkenaldian sustatzen ari den finantzaketa kolektiboko sare bat da, metodo hau normalean online izaten da. Dohaintza ekonomikoen bidez, proiektu bat, sari eta partaidetza desberdinen truke finantzatzea lortzen dena.



Honen ondorioz, crowdfunding mota desberdinak egonda eta zein hautatzen den jakin arte, ezin da 100%-era jakin nolako mailegua aterako den baina atal printzipal batzuk ditu;

- proiektuaren entrega
- proiektuaren balorazioa
- plataforman publikatzea
- proiektuaren promozioa
- proiektuaren itxiera

Honen ondorioz, gure enpresan inbertituko digun dirua lortu ahal izateko bi opzio hauek ditugu buruan, bankuko mailegua orain dela askotik existitzen den zerbait delako eta dirua lortu ahal izateko metodo on eta seguru bat delako eta beste alde batetik crowdfundinga, nahiz eta ez izan betidanik existitu den metodo bat eta azkenaldian famatua egiten ari den zerbait izanik, ideia on bat iruditzen zaigu diruaren zati bat metodo horretatik batera ahal izatea.



DIRU-SARRERAK

Produktu hau, mota ezberdinetan edukiko dugu, beraz produktu mota bakoitza prezio bat izango du.

Hasieran prezio egonkor bat jarriko da, mundu guztiak gure produktua erosi eta probatu ahal izateko. Azkenean gure produktuaren benetako prezioa ez da batere merkea,asko kostatzen delako produktua sortzea. Aurikular hauek nahiko konplexuak dira eta bere lana dute, beraz hori da arrazoietako bat. Izan ere, esan dugun bezala, hasiera batean prezio on bat izango da.



Lehenengoak 4GBkoak izango dira. Hau ez da memoria asko baina hainbat musika taldeen abestiak sartzeko nahikoa. Honen prezio benetakoa 100€ koa izango da, baina hasiera batean 85€koa izan daiteke, eta behin bezeroen fidelizazio lortzean,

prezioa igotzen joango da. Hemen, urteko aroaren arabera eskaintza bereziak egin dezakegu, jendea erakartzeko eta produktuaren funtzio probatzeko.

Bigarrenak, 8GBkoak, hau da doblea, beraz honetan abesti kantitate handiagoa sartuko da, eta hauetan baita ere bateriak iraupen handiago izango da. Honen prezioa 175€koa izango da. Hauen prezio diferentzia nahiko handia da, izan ere hoberenak dira eta hautakorra izan daiteke haibat gauzetan.

Bateriaren kontua, hurrengoa izango da; geroz eta GB gehiago izan, orduan eta bateriaren iraupena handiagoa izango da. Beraz gero eta prezioa handiagoa izan, gero eta bateria handiagoa izan.

Bateria iraunkorra izatea nahi dugu, azkenean kaskoak kirola egiteko dira, gehienbat, beraz mendira baldin bazoaz bi ordu, bi ordu horiek irautea izango zen idea, gutxienez.

Hirugarrena, 16GBkoa. Bertan abesti asko sartuko dira, gehiegi eta bateriaren iraupena oso handia izango da, besteekin konparatuta. Hauen prezioa 250€koa izango da.

Beste aldetik, prezioaren arabera; adibidez, pertsona batek ala enpresa handi batek aurikular asko erosten baldin badizkigu, prezioa desberdina izango da, ez delako berdina aurikular bat ala pare bat erostea, ala ehun aurikular erostea.

Baita ere, prezioarekin jolasteko, egun bereziekin jokatu dezakegu; adibidez, black friday, gabonak, aste santua eta halako egunak. Egun hauetan prezio espezialak egin ditzazkegu, erosleak erakartzeko eta erakartzeko. Azkenean, horrelako sustapenak egitean, jende asko erakartzen da, eta bezero fidelak lortu daitezke. Jendeari izugarri gustatzen zaizkio honelako gauzak, produktuak merkeagoak izatea, beraz, ideia ona izan daitekeela uste dugu.

4GB	100€
8GB	175€
16GB	250€

